

«Alfil musikaria» UNITATE DIDAKTIKOA

Eduki-elementuak

Alfilaren mugimenduaren bideak eskailera bat gogorarazten duenez, forma hori musika-eskalaren soinuarekin lotuko da.

Ikasleak banan-banan pasatuko dira lurrean dagoen taula erraldoi baten gainetik, eta, esku-argi baten argiaz lagunduta, taularen diagonaletan zehar mugituko dira, musikaren soinuaren laguntzaz, eta urrats bat egingo dute lauki zuzen bakoitzean.

Ikasle bat taulatik igaro bitartean, gainerakoek txalo egingo dute soinuaren erritmoan, erritmoaren zentzuaren psikomotrizitatea sustatzeko.

Egin beharreko bidea zatikatu egingo da, aurrerantz edo atzerantz egingo da, eta zati bakoitza musika-eskalaren zati baliokide batekin irudikatuko da. Gero, ibili egin beharko da bide hori, metronomo baten soinuaren laguntzaz.

- Mugimendua eta entzumen- eta musika-heziketa.
 - o Beti diagonalean, kolore bereko laukietatik. Ikasle bakoitzak libre aukeratuko du, atzera eta aurrera.

Pizgarria

Jokoa bera eta erritmoaz eta musikaz gozatzea.

Helburuak

1. Ezagutzakoak:
 - a. Alfilaren mugimendu-arauak ezagutzea
 - b. Oinarrizko musika-eskala ezagutzea
2. Afektiboak:
 - a. Taldearen sozializazioa, kohesioa
 - b. Baretzea, taldean desinhibitzea
 - c. Hazkunde pertsonala eta autoestimua
3. Psikomotorrak:
 - a. Taula gaineko subjektuaren zangoen koordinazioa eta txalo egiten dutenen besoen erritmo-koordinazioa lantzea.
 - b. Motrizitate larria lantzea, baita erritmoaren eta entzumen- eta musika-zentzua ere.

Bitartekoak

- Taula erraldoia
- Musika-erreproduzitzaila eta bozgorailuak